2010. ekitaldian ez da erroerik zuzendu.

3.8. Gastuak eta diru-sarrerak egotzeko irizpideak

Ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte errealairen arabera egotzen dira diru-sarrerak eta gastuak, haietatik datorren korronte monetarioa edo finantzarioa noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.

Galera eta irabazien kontuak jardueraka bereizten ditu aldi horretako diru-sarrerak eta gastuak, indarrean dagoen arauak ezarritako zatiketen arabera (BGAEn aurreikuspen-planetako jarduerak, BGAEn gainerako jarduerak, Gizarte-aurreikuspeneko jarduerak lotu gabeko kontua).

Erakundeak aurreikuspen-plan bakar bati lotutako jarduera egiten du, eta plan horri lotzen dizkio bere aktibo eta pasibo guztiak. Beraz, Erakundeak galera eta irabazien kontuko aurreikuspen-planetako jarduerak lotutako kontura egotzen dira diru-sarrera eta gastu guztiak.

Gastuak xedearen arabera sailkatuta daude galera eta irabazien kontuan. Dena den, hori ezinezkoa denean, kostuak egotzeko irizpide analitikoak erabiltzen dira, eta irizpide horiek zentzuzkoak, objektiboak eta konparagarriak izan behar dute.

4. Emaitzen banaketa

Erakundeko Gobernu Batzordeak 2010. ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko dio Batzar Nagusiarri, onar dezan:

Banaketa-oinarria	Banaketa
Galdutirabaziak	Erreserbak
_____	_____
-	-
Milaka	eurotan

5. Erregistrozko eta baloratzeko arauak

Erantsitako urteko kontuak egiteko aplikatu diren balorazio-arauak deskribatuko ditugu orain:

a) Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinaren barruko elementuak programa informatikoetarako eta antzekoetarako lizentziei dagozkienak dira, eta martxan jartzen diren 3-5 urtera amortizatzen dira.

Programa informatikoen mantentze-lanekin lotutako gastuak gisa kontabilizatzen dira dagokienez.

Erakundearen egoitza soziala diren lokalak (1. oharra) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak laga ditu doan. Erakundearen aldeko erabilera-eskubide horiek dagokien ondasunen katastro-balioaren arabera baloratu ziren. Ibilgetu ukiezin gisa erregistratu ziren, eta, aldi berean, jasotako diru-laguntza gisa Erakundearen ondare garbiri dagokion "Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean. Lagapen-epaia mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epea hartu du amortizazio linealerako.

Nolanahi ere, nariaduragatiko balio-zuzenketaren ondorioetarako, gutxienez ere urtean behin ebaluatuko da ea halakorik badagoen, eta balio berreskuragarria baino handiagoa bada aktiboaren kontabilitate-balioa, berehala jaitziko da balio berreskuragarriaino.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak honela baloratzen dira: erosketaren prezioa ken dagokion amortizazio metatua eta narraduragatik izan dituen galerak.

Ondasunak handitzeko eta hobetzeko kostuak ondasunaren balio handiago gisa gehitzen dira aktiboan, baldin eta ondasunaren edukiera edo azalera handitzen badute, haren errendimendua handitzen badute edo haren bizitza baliagarria luzatzen badute; hala badagokio, ordezkaturako elementuen kontabilitate-balioari baja emango zaio. Ez dira inolaz ere hobekuntzatzat joko konponenta- eta kontserbazio-lanak.

Ibilgetu materialaren amortizazioa (lursailak izan ezik, ez balira amortizatzen) metodo lineala erabiliz kalkulatzen da, sistematikoki, bizitza baliagarri zenbatesiaren arabera, haren funtzionamendua, erabilera eta luperketak eragindako balio-galera kontuan hartuta.

Amortizazioa kalkulatzeko erabiltzen diren bizitza baliagarri zenbatesiak hauek dira:

Bizitza baliagarria urtean

Garrai-elementuak 5

Altzariak eta instalazioak 5 - 10

Informatika-ekipamenduak eta datuak prozesatzeko ekipamenduak 3

Nolanahi ere, narraduragatik balio-zuzenketaren ondorioetarako, gutxienez ere urtean behin ebaluatuko da ea halakorik dagoen, eta aktiboaren kontabilitate-balioa balio berreskuragarria baino handiago bada, berehala jaitziko da balio berreskuragarria.

c) Aktibo ez-finantzarioen balioak narraduragatik izandako galerak

Amortizatzen diren aktiboak probak egiten zaizkie narraduragatik galerak izan dituzten ikuskerak, gertaeraren batek edo egoeran izandako aldaketaren batek adierazten badu balitekeela kontabilitate-balioa berreskuragarria ez izatea. Narraduragatik galerak bat egon dela dakigu aktiboaren kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarria baino handiagoa bada; zenbateko berreskuragarria jakiteko, aktiboaren arrazoizko balioari salmenta-kostua edo erabilera-balioa kendu behar zaio, bietatik handiena. Balioak narraduragatik izan dituen galerak ebaluatzeko, banaka identifikatu daitezkeen diru-fluxuak dituen mailarik baxuenean biltzen dira aktiboak (Unitate Diru-sortzaileak). Narraduragatik galerak izan dituen aktibo ez-finantzariei (merkataritza-fondoak bestelakoak) berrikuspenak egiten zaizkie balantza-data dakoitzean, galerak lehenagotatu ote diren ikuskerak.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

d) Errentamenduak

Errentamendu operatiboko hitzarmenetatik datozen gastuak galera eta irabazien kontuan kargatzen dira, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa gutziak kobrantza edo ordainketa aurreratuzat hartzen dira, eta emaitzei egotzen zaizkie errentamendu-aldian zehar, alokatutako aktiboen mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

e) Trukaketak

Ibilgetu materiala, ibilgetu ukiezina edo ondasun higiezinak inbertsioa izatera komertzialeko trukaketa bidez eskuratzeko denean, emandako aktiboen arrazoizko balioari haren truke emandako diru-kontrapartida gehitu behar zaio baloratzeke, kasu honetan izan ezik: jasotako aktiboen ebidentzia argiagoa bada, non huraxe izango duen muga. Ondorio horietarako, Erakundeak izatera komertzialeko zatitzaletatik jasotako ibilgetuaren diru-fluxuen konfigurazioa ez badator bat emandako aktiboen diru-fluxuen konfigurazioarekin, edo trukatearekin lotutako jardueren zergien ondorengo diru-fluxuen balio eguneratua aldatzen bada. Horrez gain, aurreko desberdintasun horiek garrantzitsuak izan behar dute trukaturako aktiboen arrazoizko baliorako.

Trukaketak ez badu izatera komertziala edo ezin bada zehaztu eragiketeko elementuen arrazoizko balioa, jasotako balioa honela baloratuko da: emandako ondasunaren kontabilitate-balioa gehi emandako diru-kontrapartidak, jasotako ondasunaren arrazoizko balioaren mugarekin, txikiagoa bada, eta erabiltzarri badago betiere.

f) Tresna finantzarioak

f.1) Aktibo finantzarioak

Urteko kontu hauen 8. oharrean, aktibo finantzarioen 2010eko abenduaren 31ko saldoak azaltzen dira, hauen izatera espezifikoei buruzkoak. Erakundeari aplikatutako dakizkiokeen irizpide hauen arabera sailkatuta daude:

Maileguak eta kobratzeko partidak

Merkatu aktibo batean kotizatzen ez duten deribatu gabeko aktibo finantzarioak dira, eta kobrantza finke edo zehazgarriak dituzte; hor sartzen dira, adibidez, zorra adierazten duten baloreak, hipoteka-maileguak, hipotekarako ez diren maileguak, polizen aurrerakinak, banku-gordailuak, kobratu gabeko kuoten ordainagiri...

Aktibo finantzario horiek arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran (zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak barne), eta, gero, kostu amortizatuan baloratzen dira, interes-tasa efektiboaren arabera sortutako interesak kontabilitzatu; interes-tasa efektiboa tresnaren liburu-balioa eta tresna horren mugaezina arte espero diren diru-fluxu gutzieren balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa da. Nolanahi ere, urtebete edo gutxiagoko mugaezina duten eragiketa komertzialeko kredituak beren balio nominalaren arabera baloratuko dira, hasierako kontabilitzazio-unean nahiz aurrerago, fluxuak ez eguneratzearen ondorioa handia ez bada.

Gutxienez ere ekitaldi bakotzaren itxieran, beharrezko diren narraduragatik balio-zuzenketak egiten dira, ebidentzia objektiboek pentsarazten badute ez direla kobratuko zor diren zenbateko guztiak.

Balioaren narraduragatik galeraren zenbatekoa honako hau da: aktiboaren liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsien balio eguneratuen arteko aldea; hasierako kontabilitzazioaren uneko interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira fluxuak. Balio-zuzenketak, eta, hala badagokio, lehenagotzeak, galera eta irabazien kontuan kontabilitzatuko dira. Narraduraren lehenagotzearen muga izango da, balio-narradurarik erregistratu izan ez baldin, lehenagotzearen datan kredituak izango lukeen liburu-balioa.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak

Kategoria honetan sartzen dira zorra adierazten duten baloreak, mugaeguna finkatuta dutenak eta kopuru jakinako edo jakingarriko kobrantzak ekarriko dituztenak, baldin eta merkatu aktibo batean negoziatzen badira eta erakundeak mugaegunera arte gordetzeko asmo sendoa eta gaitasuna baditu.

Uteruko da erakunde batek ez daukala benetan asmorik aktibo finantzario batean egindako inbertsioa mugaegunera arte mantentzeko, baldin eta:

- a) Erakundeak prest badago aktibo finantzarioa salitzeko (arrazoia ez denean ustekabeko egoera bat, errepikatzen ez dena eta Erakundeak aurreikusituz ezin zuena) merkatuko interes-tasaren edo arriskuen aldaketek erantzuteagatik, likidezia-premiei erantzuteagatik, inbertsio alternatiboaren erabilgarritasunaren edo errentagarritasunaren aldaketek erantzuteagatik, finantzaketa-epe eta -iturrien aldaketek erantzuteagatik, edo kanbio-tasaren arriskuen aldaketek erantzuteagatik.

- b) Aktibo finantzarioa kostu amortizatua baino askoz txikiagoa den zenbatekoan likidatzeko eskubidea badu jaulkitzailiak.

Inbertsio horiek baloratzeko irizpideak eta balio-narraduraren probak dagozkien kalkulurik maillegetarako eta kobratzeko partidetarako erabiltzen diren berberak dira.

Eusko Jauriaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak 2009ko apirilaren 29ko Aginduren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Erakundeak mugaegunera arte mantendutako inbertsioen zorro bat du 2010eko abenduaren 31n (8. oharra).

Negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak eta Galdututako aktibo finantzarioak

Galdututako irabazien bitartez arrazotzeko balioan baloratutako aktibo finantzarioak hartzen dira negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak, epe laburrean salitzeko asmo eskurazten badira, edo epea laburrean irabaziaz lortzeko batera identifikatzen edo kudeatzen den tresna-zorro baten zati badira. Galdututako irabazien bitartez arrazotzeko balioan baloratutako aktibo finantzarioak hartzen dira, halaber, Erakundeak hasierako kontabilitzazioaren unean kategoriatan sartzeko aukerazten diren aktibo finantzarioak (hor sartzearen arrazoia da informazio garrantzitsua dela). Deribatutako ere negoziatzeko mantendutako gisa salikatzeko dira, non eta ez diren berme finantzarioko kontratuak edo ez diren estaldura-tresna izendatu.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Bestalde, Erakundeak kategoriatan honen barruan kontabilizatzen ditu "Tresna finantzarioak" izeneko erregistroak eta baloratzeko 8. arauaren 5.1 atalean adierazten diren aktibo finantzario hibridoak.

Aktibo finantzario horiek, hasierako unean nahiz hurrengo balorazioetan, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, eta ekitaldiko galera eta irabazien kontuan adierazten dira balio horretan gertatzen diren aldaketak. Erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galera eta irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartueta partaidetzak

Kategoria honen barruan daude taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak.

Kostuagatik baloratzen dira hasieran, eta kostua honako honen balioak da: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi transakzio-kostuak. Hasierako balorazioan sartuko dira lehentasunezko harpidetza-eskubideak, horrelakorik eskuratu bada.

Hasierako balorazioaren ondoren baloratzeko, kostuari, hala badagokio, narraduragatik balio-zuzenketen zehabateko metatua kentzen zaio. Dena den, taldeko enpresa, talde anitzeko enpresa edo enpresa elkartu kalifikatu aurreko inbertsioen bat baldin badago, inbertsio-kostuak hartuko da kalifikazio hori izan aurreko kontabilitate-balioa. Ondare garbiantzuzenean kontabilizatu aurretiko balio-dokuntzak ondare garbiantzuzenean mantenduko dira baina ematen zaien arte.

Ebidentzia objektiboek erakusten badute liburu-balioa ez dela berreskuragarria, dagozkion balio-zuzenketak egingo dira liburu-balioaren eta balio berreskuragarriaren arteko aldearekin, ulertuz balio berreskuragarria bi hauen arteko handiena dela: arrazoizko balio salmentakostuak kenduta edo inbertsioik eratorritako diru-fluxuen balio eguneratua. Zehabateko berreskuragarria ezagutzeko bide hobetrik izan ezean, inbertsio horien narradura zehabateko, Erakunde partaidetuaren ondare garbia hartuko da kontuan, balorazio-datan dituen plusbalio tasitua erantsita. Balio-zuzenketak, eta, hala badagokio, lehenagoratzeko sortzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan erregistratu dira. Narraduraren lehenagoratzearen muga balio-narradurarik erregistratu izan ez biltz lehenagorazten den datan inbertsioak izango lukeen liburu-balioa izango da.

Aktibo finantzario salgarriak

Kategoria honetan sartzen ditu Erakundeak aurreko kategorietan sailkatu gabe dauden zorra adierazten duten baloreak, fluxu zurraren edo aurrez ezarritako trukatketak eta ondare-tresnak.

Arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira; kontrako ebidentziarik ezean, transakzio-prezioa izango da balio hori, aktiboa besterentzen edo narratzen den arte ondare garbiantzuzenean gertatzen diren aldaketak erregistratuta. Besterentzen edo narratzen den unean, ondare garbiantzuzenean metatuko galera eta irabazien kontura egotziko dira, aipatutako arrazoizko balioa zehaztu badatke betiere. Bestela, kostuari balio-narraduragatik galera kenduta erregistratzen dira. Aitzerrimonetako aktibo finantzario monetarioetan kanbio-diferentziengatik izandako galera eta irabazien kontuan erregistratu dira.

Aktibo finantzariorio salgarrien alorrean, balio-zuzenketak egiten dira ebidentzia objektiboek erakusten badute haien balioa narratatu egiten dela murrizketa edo atzerapen bat egon delako etorkizuneko diru-fluxu zenbatesietan (eskuraturako zor-tresnen kasua), edo aktiboaren liburu-balioa ezin izango delako berreskuratu (ondare-tresnetan egindako inbertsioen kasua). Balio-zuzenketaren zenbatekoa da kostuaren edo kostu amortizatuaren (galera eta irabazien kontuan aurrez kontabilizaturako balio-zuzenketak kenduta, halakorik dagonean) eta balorazioa egiten den unean duen arrazoizko balioaren arteko diferentzia. Haien arrazoizko balioa zehaztu ezin delako kostuagatik baloratzen diren ondare-tresnen kasuan, taldeko erakundeen, talde antzekoen eta elkartuen partaidetzetarako egiten den bezala zehazten da balio-zuzenketak.

Narraduraren ebidentzia objektiboak badaude, Erakundeak galera eta irabazien kontuan kontabilizatzeko balioa gutxitzeagatik aurrez ondare garbian kontabilizaturako galera metatuak. Galera eta irabazien kontuan ondare-tresnei balio-narraduragatik kontabilizaturako galera ez dira galera eta irabazien kontuaren bidez lehenngoratu.

Eskurirua eta bestelako aktibo likido balioak

Erakundeak epigrafe honetan sartzen ditu kutxan dagoen dirua, ageriko banku-gordailuak eta diru bihur daitzekoen tresna finantzariorioak, baldin eta eskuratu zirenean ez bazuten hiru hilabeteik gorako epe mugak.

Tresna finantzariorioei buruzko kontsiderazio orokorrak

Aktibo finantzariorioak birsalikatzea

Erakundeak ezin ditu hasieran negoziatzeko mantendutako kategorian edo galdurabazien bitarteko arrazoizko balioaren kategorian sartutako aktibo finantzariorioak beste kategorian batzuetan birsalikatu, ezta alderantziz ere, aktiboa taldeko erakundeen, talde antzekoen edo elkartuen ondareko inbertsio gisa kalifikatzen denean izan ezik.

Aktibo finantzariorioak ezin dira mugaezuzen arte mantendutako inbertsioen kategorian salikatu edo salikaturatu eduki, baldin eta urteko kontuen erreferentziako ekitaldian edo aurreko ekitaldian horretan sartutako aktiboak saldu edo birsalikatu badira, mugaezuzen arte mantendutako inbertsioen kategorian guztizko zenbatekoarekiko gutxienekoa ez den zenbateko batez. Salbuespenak izango dira salmenta edo birsalikakapen hauak:

a) Mugaezuzen oso gertu zudenak, edo

b) Erakundeak ia printzipal guztia kobratu duenean egindakoak, edo

c) Erakundearen kontrolpeko kanpoko gertaera isolatu bati, erakundeak aurreikusituz ezin zuten eta errepikatzen ez den bati, egotekoak.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Erakundearen kontrolpetik kanpoko gertaera isolatuzat hartuko dira, besteak beste:

- a) Jaukitzailearen kaudimena nabarmen narritzea.
- b) Kapital ekonomikoaren eskakizunetan edo aktiboaren dibertsifikazio- eta sakabanatze- mугetan izandako aldaketak.

Aktibo finantzario batek mugaegunera arte mantendutako inbertsioetan sailkatuta egoteko egokia izateari uzten dionean, erakundearen asmoa edo gaitasun finantzarioa aldatu delako, edo lehen ezarritakoaren arabera gutxiesteakoa ez den kopuru bat saldu edo birsailkatu delako, aktibo hori, mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategoriatik beste aktibo finantzarioekin batera, birsailkatu eta aktibo finantzario salgarrien kategorian sartu behar da, eta arrazoizko balioaren arabera baloratuko da. Erregisratua dagoen zenbatekoaren eta arrazoizko balioaren arteko diferentzia erakundearen ondare garbian kontabiltzatuko da zuzenean, eta aktibo finantzario salgarri bidezko arauak aplikatuko zaizkio.

Aktibo finantzarioen baja

Aktibo finantzarioei baja ematen zaie balantzean, aktiboaren jabetzari lotutako arrisku eta onura guztiak funtsean transferitzen direnean. Kobratzeko kontuen kasuan, uletuko da hori gertatzen dela, oro har, kaudimengabezia-arriskuak eta berandutza-arriskuak transmititu badira.

Aktibo finantzarioetatik hartutako interesak eta dibidenduak

Interesengatik diru-sarrerak ekitaldiaren emaitzan kontabiltzatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltza, eta "Ekarpen defintuko gizarite-aurreikuspenari lotutako inbertsioen diru-sarrerak" epigrafean erregistratzen dira. Dibidenduengatik diru-sarrerak, berriz, diru-sarrera gisa kontabiltzatzen dira galera eta irabazien kontuan, kobrantza jasotzeko eskubidea ezartzen denean, eta "Ekarpen defintuko gizarite-aurreikuspenari lotutako inbertsioen diru-sarrerak" epigrafean erregistratzen dira. Nolanahi ere, eskuratzeko data baino lehen sortutako emaitzetatik baldin badatoz banatutako dibidenduak, ez dira diru-sarrera gisa kontabiltzatzen, baizik eta inbertsioaren kontabiltate-balioa txikiagotuz.

Tresna finantzarioen balorazioa

Martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuak tresna finantzarioei aplikagarri zaien kontabiltate-erregimena aldatzen du, eta hasierako kontabiltzazioaren ondorengo kontabiltzatzeko eta baloratzeko erregimen bat ezartzen du, tresna finantzarioak esleituta dauden kategoriaran edo zorroaren araberrakoa izango dena.

Kontabiltatearen kontzeptu-esparruaren 6. puntuko 2. atalak merkatu aktibo batean kotizatutako prezioaren kontzeptua sartzen du, eta, halakorik ezean, balorazio-ereduak eta -teknikak aplikatzeko beharra.

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Tresna finantzario batek data jakin batean duen arrazoizko baliozati batzuen da interesatuta eta behar bezala informatuta dauden erosi batek eta saltzaille batek, elkarren beharrik izan gabe, erosteko edo saltzeko erabiliko lukeen prezioa.

Kotizatzen duten inbertsioen arrazoizko balioak indarrean dauden erosketa-prezioetan oinarritzen dira. Aktibo finantzario baterako merkatua ez bada aktiboa (eta kotizatzen ez duten tituluetarako), Erakundeak, arrazoizko balioa ezartzeko, funtsean berdina diren beste tresna metodok, Eredu horiek zuzenean erabil ditzake Erakundeak edota alde saltzaillea izan zen kontrako alderdiak.

Merkatu aktibo bat izateko, baldintza hauek guztiak bete behar dira batera:

- Elkartrukatzen diren ondasunak edo zerbiztuak homogeneoak izatea;
- Ondasun edo zerbiztu jakin baten zatitzaileak edo saltzailleak ia edozein unetan aurkitu ahal izatea; eta
- Prezioak ezagunak eta publikoarentzat erraz ezagutzeko modukoak izatea. Gainera, prezio horiek merkatuko transakzio errealek, egungoak eta erregularrak adierazi behar dituzte.

Balorazio-eredu eta -tekniketan sartzen dira, erabiltzari egonez gero, interesatuta eta behar bezala informatuta dauden alderdiek, elkarren beharrik izan gabe, duela gutxi egin dituzten transakzioen erreferentziak, bai eta funtsean berdina diren beste aktibo batzuen arrazoizko balioaren erreferentziak, etorkizuneko diru-fluxu zenbatesiak deskontatzeko metodoen erreferentziak eta oro har aukerak baloratzeko erabiltzen diren ereduak ere. Erabiltzen diren balorazio-teknikek ahalik eta gehien erabili behar dituzte merkatuan ikus daitezkeen datuak, eta ahalik eta gutxien jo behar dute kontsiderazio subjektiboetara eta egiaztatu edo behatu ezin diren datuetara.

Bestalde, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, nahitaezkoa da BGAEEK Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuko 11. artikuluan ezarritakoa betetzea. Artikuluak sailkapen- eta balorazio-irizpide hauek ezartzen ditu:

- Ondare-tresnak balantzean daude erregistratuta, "Galdurabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako bestelako aktibo finantzarioak" epigrafean, eta arrazoizko balioan baloratzen dira. Merkatu arautuetan negoziatzeko onartu diren baloreetarako, egunaren itxieran duten kotizazioa hartu da arrazoizko baliozati, edo, halakorik ezean, azkena argitaratutakoa.

- Zorra adierazten duten baloreak bi epigrafetan sailkatzen dira, kontabilitate-tratamendu desberdinarakin:

- "Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak"; hor sartzen dira Erakundeak mugaegunera arte mantendu nahi dituen baloreak, kostu amortizatuaren erregistrazioaren diruak. 2009ko apirilaren 29ko Aginduak 5.2 artikuluan ezartzen duen moduan, kategoria honetan sar daitzeko ELGaren barruan araututako merkatuetan negozioa daitzeko errenta finkeko eskubideak eta baloreak, finkatutako mugaegunak eta zenbateko zehaztu edo zehazgarriko kobrantzak dituztenak, baldin eta Erakundeak kobrantza horiek mugaegunera arte kontserbatzeko benetako asmoa eta finantza-gaitasuna baditu.

- "Galdurabazien bitartez arrazozko balioan baloratutako bestelako aktibo finantzaritako", arrazozko balioan erregistratzen direnak. Merkatu arautuetan kiritatutako onartu diren baloreetatara, arrazozko balioetatara hartzen da ekitaldiko azken kiritatutako, edo, halakorik ez, azkena argitaratutakoa. Baloreen kiritatutako ez bada nahikoa adierazgarria, edota negoziatutako horretarako onartu ez bada, merkatuko balioa zehazteko bere etorkizuneko diru-fluxuak eguneratzen dira, errenbortsu-balioa berriz, diru-merkatuetako kurba inplizituak hartuta erreferentziatuz, eta balore horien likidatze-malla, jaulkipenaren baldintza zehatzak, jaulkitze-aldian, herrialde-arriskua edo tituluarakin lotutako beste edozein arrisku adierazten duten diferentzialak aplikatuz.

- Balantzeko "Galdurabazien bitartez arrazozko balioan baloratutako bestelako aktibo finantzaritako - Tresna hibridoak" epigrafearan barruan egituratutako aktibo finantzaritako arrazozko balioan baloratzen dira osorik (dirty value); balio hori kalkulu-agentearan bidez lortzen da (Erakundearen kasuan, Intermoney Valora Consulting, S.A. konpainiaren bidez, nagusiki). Aktibo horietarako, beharrezkoa da, ziurgabetasun-testuinguru batean, azpikoaren portatzea. Aukerakotasun sinplekun tresnen kasuan, formula analitiko txikiak erabiltzen dira (Black-Scholes, Black'76, edo aurrekoen aldaeraren bat). Aukerakotasun konplexudun tresnen kasuan, berriz, MonteCarlo metodoa erabiltzen da nagusiki.

f.2) Pasibo finantzaritako

Zorrak eta ordaintzeko partidak

Kategoria honetan Erakundeak eragiketa komertzialengatik zorrak eta eragiketa ez-komertzialengatik zorrak sartzen ditu.

Hasieran zor horiek kontabilitateko arrazozko balioa erabiltzen da, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera egokituta, eta gero kostu amortizatuaren bidez kontabilitatean diru, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltza. Interes efektiboa honako hau da: tresnaren liburu-balioa eta pasiboaren mugaegunera arte aurreikusituen diru etorkizuneko ordaintzeko esperotako korrontea berdintzen dituen eguneratze-tasa.

Notianahi ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa kometzialengatik zorrak beren balio nominalaren arabera baloratuko dira, hasierako unean nahiz aurrerago, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa handia ez bada. Dauden zorrak berriz negoziatzen badira, pasibo finantzarioan funtsezko aldaketarik ez dagoela ulertuko da, baldin eta pasibo berriarren diru-fluxuen balio eguneratua (komisio garbiak barne) ez bada asko aldatzen jatorrizko pasiboaren ordaintzeko dauden diru-fluxuen balio eguneratutik, jatorrizko pasiboaren interes-tasa efektiboan eguneratuta biak.

Negoziatzeko mantendutako pasibo finantzarioak eta galdutako pasibo finantzarioak

Galdutako pasiboen bitartez arrazoiak balioan baloratutako pasibo finantzarioak hartzen dira negoziatuzko mantendutako pasibo finantzarioak, epe laburrean berriz eskuratuzko asmoz jaulkitzen badira, edo epe laburrean irabaziazko lortzeko batera identifikatzen edo kudeatzen den tresna-zorro baten zati badira. Galdutako pasiboen bitartez arrazoiak balioan baloratutako pasibo finantzarioak hartzen dira, halaber, Erakundeak hasierako kontabilizazioaren unean kategoriatan sartzeko aukeratu dituen pasibo finantzarioak (hor sartzearen arrazoiak da informazio garrantzitsua dela). Deribatutako ere negoziatuzko mantendutako gisa sailkatzen dira, non eta ez diren berme finantzarioko kontratuak edo ez diren estaldura-tresna izendatu.

Pasibo finantzario horiek, hasierako unean nahiz hurrengo balorazioetan, arrazoiak balioan arabera baloratzen dira, eta ekitaldiko galera eta irabazien kontuan egoten dira balio horretan gertatzen diren aldaketak. Jaulkipenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak sortzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan kontabilizatuak dira.

f.3) Kasu bereziak

Tresna finantzario hibridoak

Tresna finantzario hibridoetan konbinatzen dira kontratu nagusi bat, deribatua ez dena, eta deribatu finantzario bat, deribatu implizitu derizona eta independenteki transferitu ezin dena. Deribatu horren eraginez, tresna hibridoaren diru-fluxu batzuk aldatu egiten dira, deribatu soilaren diru-fluxuak aldatzen diren antzera.

Aktibo finantzario horiek, hasierako unean nahiz hurrengo balorazioetan, arrazoiak balioan arabera baloratzen dira, eta ekitaldiko galera eta irabazien kontura egoten dira balio horretan gertatzen diren aldaketak. Erosketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galera eta irabazien kontuan kontabilizatuak dira.